

Foru Aldundiak AP-68 autobiderako alternatiba teknologikoei buruzko azterlana adjudikatu du

Gasteiz, 2024ko ekainaren 25a.- Foru Gobernu Kontseiluak gaur lizitatu dio Idom SA enpresari azterlan bat, AP-68 autobidea erabiltzeagatiko kanon bat ezartzen bada, aukerarik teknologiko egokienak aztertu eta zehazteko, AVASaren emakida 2026ko azaroan amaitu ondoren. Kontratu horren zenbatekoa 208.286 euro da, eta gauzatzeko epea 19 aste.

Azterlan hori kontratatuta, Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari emandako agindua betetzen da. Arabako Lurralde Historikoko Errepideen Foru Sareko edukiera handiko bideen finantzaketa eta kudeaketa sistemari buruzko txostenaren barruan 2022ko ekainaren 30ean onetsitako ondorioen txostenaren bidez egin zen agindu hori.

Foru Gobernu Kontseiluak laster adjudikatuko du bigarren azterlan bat, Arabako Batzar Nagusiek aurkeztutako gainerako gaiei erantzuteko. Bigarren azterlan horretan, Arabako Lurralde Historikoko edukiera handiko gainerako bideetan erabileraren arabeko ordainketa sistema aztertuko da, eta, besteak beste, bideak, ibilgailuak, tarifak, hobariak, alternatiba teknologikoak eta ezarpen egutegia zehaztuko dira.

Bi azterlanen emaitzak aukera emango du ibilbide orri bat izateko, Arabako Lurralde Historikoko edukiera handiko bideetan erabileraren arabeko ordainketa sistema bat garatu ahal izateko, finantzaketa eta kudeaketa eredu berri bat ezarriz, ekonomia, gizarte eta ingurumen jasangarritasuneko parametroetan oinarrituta.